



TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2013KO MAIATZAREN 31AN EGINIKO EZOHIKO ETA PRESAZKO BILKURARI DAGOKION AKTA

Errenteriako udaletxean, 2013ko maiatzaren 31eko goizeko 08:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Miren Alazne Korta Zulaika.
- Garazi López de Echezarreta Auzmendi.(Denak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)

Ez dira etorri, baina ezin-etorria adierazi dute, Luis María Diez Gabilondo, Irune Balenciaga Arrese y Jon Txasko Orgilles (O.E. BILDU).

Bertan dago eta egintza fedatu du Begoña Bueno Barranco idazkari nagusiak.

Puntu bakarra: administrari laguntzaile bat denboraldi batez betetzeko deialdia. Deialdiaren oinarriak onartzeko proposamena.

Hirigintza, Azpiegitura, Zerbitzuak eta Ingurumeneko administrari-laguntzaile lanpostua behin-behinekotasunez betetzen aritu dena bitarteko funtzionarioak -lanpostu-zerrendan 5154.2 kodeduna- uko egin dio lanpostu horretako izendapenari Donostiako Udaletik lan-eskaintza egin diotelako.

Langileriaren ordezkartzak oinarriekiko adostasuna adierazi du.

Jakinaren gainean egonik, Alkatezak 2011ko ekainaren 27ko Dekretuan erabakitako eskuordetzen baitan, erabaki hau hartzea Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena dela.

Giza Baliabideko ordezkariaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarra, aho batez,

ERABAKI DU

1. Deialdia egitea Hirigintza, Azpiegiturak, Zerbitzuak eta Ingurumeneko administrari laguntzaile lanpostua, LZko 5154.2 kodeduna, denboraldi batez betetzeko.
2. Onartzea deialdia arautuko duten oinarriak, espediente honetan jasota daudenak.
3. Gastua baimentzea aurrekontuaren I. kapituluaren gain, hain zuzen aurrekontuan diru-izendapena duelako.
4. Iragarkiak argitaratzea Udaleko iragarki-oholean eta udal intraneten.



Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 08:05 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.